



ILUSIOA ZABALTZEN
DUEN IPUINAK

bibotecainfantil.fundaciononce.es



1

Aurora ESTARIA



2

DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.



3

ITSUMENARI BURUZ

Bazenekien gure burmuinak jasotzen duen informazioaren % 80 **begien bitartez** iristen zaigula? Horrek esan nahi du dituzun trebetasuneko asko ikusiz ikasi dituzula. Harrigarria da, ezta? Ikusmenak zeregin oso garrantzitsua dauka gure bizitzan.

Zer gertatuko litzateke **IKUSI EZINGO BAZENU** edo **zailtasunez ikusiko bazenu?**

Itsumena ikusmen falta da. Erabat itsua izan zaitzke, edo zenbait **Forma eta Kolore** ikusi. Itsu direnek beste zentzumenak gehiago garatzen dituzte, falta zaien hori orekatzeko. Ipuin honetan, Aurora ezagutuko duzu, eta imajinazioz eta ilusioz betetako neska dela ohartuko zara. Haren bitartez, benetako heroi bat ezagutuko duzu, bere **ikaxa moldatzeko gai dena.**

4

Katu, baten modukoa naiz, isiltasunez mugitzen naiz, inork ez daki non nagoen, etxeko zein lekutan nabilen...



Baina nik bai denak entzuten ditudala, hara!

INORK BAINO BELARRI FINAGOAK DAUKAT... Aita haserretu egiten da ezkututzen naizenean, baina nik primeran pasatzen dut.

5

"Mehe" nire **itsu-txakurrari** ere ez zaio batere gustatzen katu baten modukoa izatearena.

Nik uste katuen eta txakurren arteko ezinikusi horrengatik dela.

Ez dakit nori bururatu zitzaion esatea ez direla elkarrekin ondo moldatzen, baina orduz geroztik etsai bihurtu ziren eta

toñtakeria hutsa da.



Bide batez, "Mehe" deitu

NION LODI-LODI

DAGOELAKO.



6

Ni saiatzen naiz nire lagun onari buruan sartzen
katuak **epelak**
eta
lausengariak
direla.

"Begira Pirlo, Zezilia izeba
zaharraren katua. Ukitzen dudanean,
ileak kilimak egiten dizkit hatzetan
eta mihi barregarria dauka,
latza eta txikitxo.
Barre izugarria eragiten dit."



Mehek kasurik ez du egiten, ordea.
Baina katuen kontuan soilik, gainontzeko gauzetan
inoiz egon den txakurrik **ONENA ETA MANAKORREN**
baita.

7

Begiekin ikusteko zailtasunak ditudanez, beste modu
batera ikusten dut. Adibidez, zerbait ukitzean
nolakoa den jakin dezaket, **EDO SOINUAK ENTZUN...**
Imajinazioarekin funtzionatzen duen zinema berezi
baten egotearen modukoa da, eta sekulakoa da.

Nik **dena imajinatzen dut...**



Ama imajinatzen dut
patatak saltsa berdetan
egiten dituean,
egundokoak ateratzen
zaizkio!

Irakaslea Alfonsoren atzetik korrika imajinatzen dut,
nire klasean dagoen mutiko bihurri bat da. Ur-tantez
kargatutako hodeiak eta eguzkiak berotutako
ortzadarra imajinatzen ditut.

HORRENBESTE
GAUZA
IMAJINATZEN
DITUT!



8

DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.

Baina gauza guztietan

HOBEEKIEN IMAJINATZEN

dudana aitonak eta
biok igandeetan irratitik
entzuten ditugun
futbol-partiduak dira.



Izan ere, niri,
ANIMALIEZ
APARTE,

kirolak izugarri
gustatzen zaizkit,

futbola da gehien gustatzen zaidana,

oso zirrarragarria
delako.

Partiduak daudenean, irradi
ZAHARRAREN ONDOAN

ondoan esertzen gara, elkarren ondoan

estu-estu, **PINGUINOEK**

egiten omen duten bezala hotz handia dutenean, eta
arretaz entzuten dugu:

"ESKUINEKO
HEGALETIK DOA,
KONTRAKO
JOKALARIA
DRIBLATU,
AREARA ERDIRATU

ETA... GOOOOOOOO!!!..



Ufal Hau zirrara! Aitona eta biok elkarri besarkatzen diogu eta alaitasunez salto egiten dugu,

PINGUINOEK egiten duten bezala ekaitzaren ostean eguzkia ikusten dutenean.



"AUPA!"

garrasi egiten dugu biok batera, eta amak horrenbeste ez oihukatzeke esaten digun arren, nik pentsatzen dut zeinen polita litzatekeen jendeak emozioz salto egitea nire ahotsa entzuten dutenean garrasika:

"¡GOOOOL!"


11

Egia da oraindik txikia naizela erabakitzeke, nahiz eta 10 urte daugokadan jada, aigue!, baina badakit nagusitan zer izan nahi dudana:

LOCUTORA DE RÁDIO.

Partiduak irratitik emango ditut aitonarekin batera, eta benetako talde-lana egingo dugu. Berak zer gertatzen den esango dit belarrira, eta nik pasioz kontatuko dut mikrofonotik. Batzuek ezinezko ametsa dutela pentsatzen dute, eta amore eman dezadan saiatzen dira.

Orduan, nik ozen esaten diet, ahots argi eta garbiz:





"Ezinezkoa... sinesten dutenen helmuga da"

Eskolan entzun nuen esaldia behin, eta ez dakit zer daukan, baina esaten dudanean gustura geratzen naiz eta denak **MUSU HANDIA EMATERA HURBILTZEN DIRA.** Eta orduan nabaritzen dut. Haien masailek, nirera hurbiltzean, nahi dudana egin dezakedala esaten didate, **NIRE IKUSMENA ASKOZ ere urrunago iristen delako.** **NIK HORIZONTEAZ HARAINDI ERE IKUS DEZAKET.**

13



amaiera

14